

INTIAk gazteei zuzendutako nekazaritzan hasteko ikastaroan izena emateko epea ireki du

- **Ikastaroa, formatu erdipresentzian, 200 ordukoa izango da eta abuztuan hasten da.**
- **Formakuntza honi esker, sektorean profesionalki hasi behar dutenek beharrezko trebakuntza eta gaitasuna lor ditzakete.**

2022ko ekainaren 28a.- INTIA sozietate publikoak ireki du abuztuaren amaieran hasiko den nekazaritza sektorean hasteko gazteei zuzendutako ikastaroan izena emateko epea. 25 urtetik gorako ibilbidea duen formakuntza da, eta hastear daudenek, bai nekazaritzan bai abeltzaintzan, behar diren gaitasun eta trebakuntza profesionala lortzeko helburua du. Gainera, Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako Planaren lehen instalaziorako laguntzen deialdian eskatzen den ikastaroa da.

Klaseak formatu erdipresentzian ematen dira, eta guztira 200 ordu izango dira, lau hilabetetan banatuta. Beraz, abenduan amaituko da kurtsoa. Klase presentzialak goizez (9:00etatik 13:00etara) izaten dira, astean bi egunez, eta honez gain, prestakuntzaren beste zati bat online formatuan egiten da. Horri esker, duen ordu kopurua murriztu daiteke, sektoreak bereziki eskatzen duen bezala. Bestalde, ikastaroak 425 euroko kuota du.

Ikastaro hau egin nahi dutenek 948 01 30 58 telefonoan eman behar dute izena, 8:30etik 14:00etara. Izena emateko epea uztailaren 29an bukatuko da.

Ikastaroa nekazaritza-sektorean edo abeltzaintza-sektorean sartzen direnen artean banatuta dago, eta hainbat alderdi jorratzen ditu: arriskuen prebentzioa, kontabilitatea, produktu fitosanitarioen manipulazioa, ustiategiaren kudeaketa..., bai alderdi teorikotik bai praktikotik lantzen diren edukiekin.

Prestakuntza honen barruan, baserri, entsegu edo finken bisitak egiten dira, Nafarroako nekazaritzan egiten diren lanak eta aurrerapenak ezagutzeko. Berrogeita hamar aditu parte hartzen dute ikastaroaren programa barruan, clase orduak ematen.

Guztira, urte hauetan, 2.300 gazte baino gehiago igaro dira INTIAk antolatutako ikastaro hauetatik.

Landa Garapeneko programa

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, ekitaldi honetan, laguntza-lerro bat onetsi du nekazari gazteak lehen aldiz instalatzeko. Laguntzak 3,5 milioi eurokoak izango dira, Nafarroako Landa Garapeneko Programa (2002-2020) delakoaren barruan, 2023 eta 2024 urteen kargura.

Laguntzen helburua gazteen instalazioa sustatzea da, belaunaldien arteko txandari, populazioa finkatzeari eta landa-ingurunean jarduera sortzeari laguntzeko, nekazaritza-sektorearen etorkizunari arrakasta- eta jarraipen-bermeekin aurre egiteko.

Nafarroako nekazaritzako enpresen lehiakortasunaren hobekuntza indartu nahi da, landa eremuan sare sozioekonomiko egonkor, dinamiko eta erakargarriari eutsiko zaiola ziurtatzeko, aukera berdintasuneko eta bizi kalitateko baldintza egokiekin.

Empresak Sortzen Laguntzeko Zerbitzua

Formakuntza honez gain, INTIAk, Nekazaritzako Enpresak Sortzen Laguntzeko Zerbitzuaren bidez, aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen die nekazaritzan edo abeltzaintzan hasi eta aurrera egin nahi duten gazteei.

Leihatila bakarreko zerbitzu bat jarri du eskura. Bertan, instalatzeko eman behar diren urratsei buruzko informazio guztia, laguntza integrala eta banakakoa, eta prestakuntza-eskaintza bat egongo dira. Horiek ezinbesteko tresna baitira lanbide-kualifikazioa egokitzeko eta lehiakortasuna hobetzeko.